

# ASTEAZKENAK ELIKADURA SUBIRANOTASUNAREN ALDE MIÉRCOLES POR LA SOBERANÍA ALIMENTARIA



Último miércoles de mes  
Hilaren azken asteazkenetan

**VIDEOFORUM**

## “Sobredosis de Azúcar” Los lobbys de la industria agroalimentaria Elikagai-industriaren lobbyak

Taller-exprés de cocina: Limonada de Stevia y sus propiedades  
Sukaldaritzatailer txoa: stevia-edaria eta bere ezaugarriak



Con la colaboración de la socia de BioAlai, nutricionista y  
terapeuta psico-corporal: **Nagore Lázaro**-ren laguntzari esker,  
BioAlaiko bazkidea, nutricionista eta terapeuta psikokorporala

NOIZ: URRIAK 25 DE OCTUBRE 19:00

NON: BIOALAI, Txalaparta kalea 23.

**GRATIS  
DOHAN**



## BioAlaik, Bionekazaritzak eta Zentzuz Kontsumituk ELIKADURA-BURUJABETZAREN ALDEKO ASTEAZKENETARA gonbidatzen zaituzte

Zertaz ari gara elikadura-burujabetza aipatzen dugunean? Bada alternatiba errealik egungo elikadura-ereduaren orde? Ba al dugu lortzerik elikadura osasuntsuagoa, ingurumena gehiago errespetatuko eta ekoizle zein kontsumitzaileen eskubideez gehiago arduratuko dena?

Besteak beste galdera horiei erantzuten saiatuko da ELIKADURA-BURUJABETZAREN ALDEKO ASTEAZKENAK bideo-forum ekimena, zeina BioAlaik, Bionekazaritzak eta Zentzuz Kontsumitu partzuergoak (Mugarik Gabek, Setem Hego Haizeak eta Medicusmundi Arabak osatutakoa) jarri baitugun abian.

**HURRENGO HITZORDUA:** URRIAREN 25ean, 19:00etan, Non? BioAlairen egoitzan (Txalaparta, 23).

Asteazken honetan **“SOBREDOSIS DE AZÚCAR” dokumentala** proiektatuko dugu. Film horrek argitara eman nahi du multinazionalak eta lobbyek nola eragiten duten gure elikaduran, ikerketa zientifikoen eta erabaki politikoen bitartez.

Ondoren, **sukaldaritzatailer azkarra** izango dugu, nutricionista eta terapeuta psikokorporala den **Nagore Lazaroren eskutik**. STEVIA-EDARIA prestatuko dugu... azukrerik gabe.